

IDEIA (Capacity controller)

Guk pentsatutako ideiak Capacity Controller izena du. Proiektua, lokal edo gune bateko aforoa kontrolatzean datza. Horretarako, sentsoire bat dugu sartu eta ateratzen den pertsonak kontatu ahal izateko. Horrekin bat, aplikazio bat egongo da, datu guzti horiek ikusi eta interpretatzeko.



Aplikazioaren bi zerbitzu ezberdinak

-Alde batetik, lokalarentzat zuzenduta egongo den zerbitzua edukiko dugu. Hau da, nagusiek edo langileek beraien lokaleko mugimendua ikusteko aukera izango dute, aplikazioak eskaintzen dituen datuekin. Datu horiekin hainbat erabaki hartu ditzazkete beraien negozioari etekin handiena ateratzeko, bezero gehiago eskuratzeko eta kapitala lortzeko.

-Aplikazioaren bidez, kontsumitzaileek tabernetako nahiz dendetako aforoa ikusi ondoren, hau da, gunea beteta edo libre dagoen ikusi ondoren, lokalera joateko erabakia har dezakete. Gainera, erreserbak eta erosketak egiteko aukera edukiko dute, lokal horren orri nagusira bideratuz.

Proiektu honekin, pertsonen denbora aurreztea eta eguneroko erosotasuna bilatzen dugu. Komunikazioa handitzeko aukera aparta izango da, izan ere, badakigu gaur egun instagramek eta publizitateak bezero asko erakartzen dituela.

